



ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko Brigadako BI PEOI GIDARI plazaen deialdi bereziko BEHIN BETIKO onartu eta baztertuen zerrendak onartzea.

2022ko abenduaren 14ko Alkate Dekretu bidez (1398 zk.) Oñatiko Udalak Brigadako BI Peoi Gidari plaza oposizio-lehiaketa bitartez hornitzeko hautaketa prozesuaren oinarri orokor eta espezifikoa onetsi zituen (2022ko abenduaren 30 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 247. zk.).

Deitutako plaza zerrenda, gainera, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko martxoaren 7an (56. zk.).

Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak 2023ko irailaren 14an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 178. zenbakian. Dagokion epea igarota eta erreklamazioak jaso eta berrikusita, behin betiko zerrendak argitaratzen dira.

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko alkate naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita honen bidez erabakitzen dut:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak oposizio-lehiaketa bitartez deitu dituen brigadako BI peoi gidari plaza hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien BEHIN BETIKO zerrendak onartzea.

Onartuen zerrenda:

NAN DNI	Abizenak eta izena Apellidos y nombre	I. Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico 1
***0373**	DEL BARRIO VILLAZALA, JOAQUIN	BAI
***2325**	ECHENAUZIA IDIGORAS, JOSUNE	BAI
***7499**	GONZALEZ NUÑEZ, JONATAN	BAI
***9575**	LARRINAGA PEREA, JULEN	BAI
***4132**	VELEZ DE MENDIZABAL, AMAIA	BAI

Baztertuen zerrenda:

Ez da horrelakorik izan

Bigarrena.- Oposizio faseko lehenengo probaren data 2024ko urtarrilaren 24an izango da. Zehaztapen gehiago Oñatiko web orrian argitaratuko dira.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- www.oñati.eus web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Ebazpenaren aurkako bideak

Onarpen, bazterketa eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen alkatetzaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Udalburutzari hilabeteko (1) epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.


Baztertutako pertsonak hautapen prozesura aurkeztu ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen badute kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela, egun horretarako ez bada ebatzi.

Probak egiten diren egunean aurkeztutako errekurtsoa ebatzi ez bada, hautagaiak kautelaz egin ahal izango dituzte. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñati, 2023ko azaroaren 7an

Alkatea



Izaro Elorza Arregui